



Gaia: prozedura bertan behera uzteko akordioa.

Espedientea: euskal unibertsitate-sistemako ikerketa-taldeen jardueri laguntzeko diru-laguntzen deialdia (2018ko uztailaren 24eko agindua, 2018/07/31ko 146. zk.ko EHAA).

Hezkuntza Saila

Hezkuntza sailburuaren 2018ko uztailaren 24ko agindua (2018/07/31ko 146. EHAA), euskal unibertsitate-sistemako ikerketa-taldeen jardueri laguntza emateko diru-laguntzak deitzen dituen, dela-eta Sail honetan tramitatzen ari den administrazio-prozeduran ebaluazio-txosten bat gehitu behar zaio; izan ere, txosten horrek arloari buruzko iritzia eman behar du eta prozedurari gehitu behar zaio derrigorrean, eman beharreko ebazpenaren edukiari buruz irizpidea zehazteko, mota horretako administrazio-prozedurei aplikatzen zaien araudiak xedatutakoaren arabera.

Horregatik, hau jakinarazten dugu: 2018/11/21ean eskatu zaio Ebaluazio Zuzendaritza Orkorraren Ikerketa Agentzia Estatalari aipatutako txostena, eman eta bidal dezan, administrazio-espedienteari gehitzeko asmoz.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren leku 39/2015 legeak 22.1.d) artikuluan xedatutakoaren arabera, hiru hilabetetik gorakoa ezin izango den epe batean, eskaera egiten denetik derrigorrezko txosten arrazoitua jaso arte, bertan behera utzi ahal izango da prozedura bat ebatzi eta ebazpena jakinarazteko legezko gehienezko denbora.

Horren arabera,

EBAZTEN DUT

Bertan behera uztea Hezkuntza sailburuaren 2018ko uztailaren 24ko agindua (2018/07/24ko 146zk. EHAA), euskal unibertsitate-sistemako ikerketa-taldeen jardueri laguntzeko diru-laguntzak deitzen dituenaren, espedientea dela-eta Sail hau aurrera eramaten ari den administrazio-prozeduraren tramitazioa, Hezkuntza sailburuak eman beharko duen ebazpenaren edukia zehazteko funtsezkoa izango den derrigorrezko txostena jaso eta espedientera gehitu arte. Txosten hori jasotzea dela-eta, emango zaio interesatuari unean-uneko informazioa.

Halaber, hau jakinarazten dugu: tramitazioa bertan behera uzteko epea ezin izango da inoiz ere hiru hilabetetik gorakoa izan, Administrazio Publikoen